

# INDUSTRIAREN PERTZEPZIO SOZIALA ESPAINIAN

*Posted on 11/10/2023 by Naider*

[Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioko Industria](#)ko Enpresa Txiki eta Ertainen Idazkaritza Nagusiak eta [EOI Fundazioa](#)k sustatutako Industria Estrategia eta Prospektiba Industrialaren Zentroa (CEPI) sortu berria da, eta "[La percepción social de la Industria en España 2023](#)" (Industriaren Pertzepzio Soziala Espainian 2023) izeneko txostena aurkeztu du gizartean. Txosten horrek ikuspegi bikoitza jasotzen du: batetik, biztanleria orokorrak Espainiako industriari buruz duen pertzepzioa, eta, bestetik, industria-sektoreak berak bere buruaz duen pertzepzioari buruzko diagnostikoa, biztanleriak berak ikusten duela uste duen moduari buruzkoa. Emaitzen azterketatik abiatuta, azterlanak gakoak identifikatzen ditu eta jarduera-proposamenak egiten ditu industria-kultura sustatzeko.



